Tolosako Udaletxean, 2012ko abenduaren 28an.

**BILDURIK**

Alde batetik, Ibai Iriarte San Vicente, Tolosako Udaleko alkate-lehendakaria, Tolosako Udalaren izenean, azaroaren 14ko Erret Dekretuaren Bigarrengo Xedapen Gehigarriak ematen dizkion ahalmenez baliatuta.

Bestetik, Mª Concepción Gonzalez Goenaga, Ilarki Elkargoaren izenean, adinez nagusia, Tolosako San Frantzisko pasealekua 25-2.C helbidea duena, eta 15.952.071F NAren jabea.

Bi aldeek, dagokien ordezkaritzarekin jardunez, hitzartzeko lege-gaitasuna aitortzen diote elkarri.

**AURREKARIAK**

**LEHENA**.- Osoko Bilkuran, Tolosako udalerrian Etxez Etxeko laguntza zerbitzua esleitzeko prozedura arautzen duten baldintza administratibo partikularrak onartu zituen 2012ko urriaren 30ean.

**BIGARRENA.-** Pleguaren bigarren karatulan hauxe xedatzen zen: 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko zela 2012ko Hego Euskal Herriko lau probintzietako KPI.

**HIRUGARRENA**.-Zegokion prozedura tramitatuta, adjudikazioa Gobernu Batzarrak egin du 2012ko abenduaren 21ean.

**LAUGARRENA.-** Behin adjudikazioa eginda, aldeek erabaki dute, adostasunez, eta gaur egungo krisi-egoera aintzat hartuta eta Udalak kontratazio arloan duen irizpidearekin bat etorrita, ez aplikatzea bigarren aurrekarian aipatu den berrikuspen-klausula.

**<u>KONTRATUAREN KLAUSULAK</u>**

**LEHENA**.- Ilarki Elkargo enpresak konpromisoa hartzen du Tolosako udalerrian Etxez Etxeko Laguntza zerbitzua aurrera eramateko, Baldintza Tekniko eta Ekonomiko-Administratiboek xedatzen dutena zehatz-mehatz betez. Eta aipameneko baldintza agiriarekin ados dagoela adierazteko sinatu egin du ekitaldi honetan, eta kontratu honi lotzen zaiona.

**<u>BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN PLEGUAREN KARATULA, TOLOSAKO UDALERRIAN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA ESLEITZEKO</u>**.

**1.- Kontratuaren xedea**

En la Casa Consistorial de la Villa de Tolosa, a 28 de diciembre de 2012.

**REUNIDOS**

De una parte, Ibai Iriarte San Vicente, en su calidad de Alcalde-Presidente del Excmo. Ayuntamiento de Tolosa, actuando en nombre y representación del mismo, en virtud de las facultades conferidas por la Disposición Adicional Segunda del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre.

De otra parte, Mª Concepción Gonzalez Goenaga, en representación de Ilarki Elkargoa, mayor de edad, con domicilio en Tolosa, paseo San Francisco 25-2C, con D.N.I.: 15.952.071F.

Una parte y otra parte, con la representación con que respectivamente actúan, se reconocen mutuamente capacidad legal para obligarse.

**ANTECEDENTES**

**PRIMERO.-** El Pliego de Condiciones para la contratación del servicio de Ayuda a Domicilio en el municipio de Tolosa, fue aprobado en sesión Plenaria Ordinaria, de fecha 30 de octubre de 2012.

**SEGUNDO.-** En la carátula segunda del pliego se establecía que, con efectos de 1 de enero del 2013, se aplicaría el IPC del año 2012 de las cuatro provincias de Hego Euskal Herria.

**TERCERO.-** Tramitado el correspondiente procedimiento, ha sido adjudicado, mediante acuerdo de la Junta de Gobierno, de 21 de diciembre de 2012.

**CUARTO.-** Una vez realizada la adjudicación, las partes, de mutuo acuerdo, considerando el momento actual de crisis y en coherencia con el criterio aplicado por el Ayuntamiento en materia de contratación, han acordado no aplicar la cláusula de revisión que ha sido mencionada en el antecedente segundo.

**<u>CLÁUSULAS DEL CONTRATO</u>**

**PRIMERA.-** La empresa Ilarki Elkargoa se compromete a prestar el contrato del servicio de Ayuda a Domicilio en el municipio de Tolosa con estricta sujeción al Pliego de Condiciones Técnicas y Económico Administrativas, de lo que deja constancia firmando en ese acto su conformidad con los mismos, y que se adjuntan al presente contrato.

**<u>CARÁTULA DEL PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA CONCESIÓN DEL SERVICIO DE AYUDA DOMICILIARIA EN EL MUNICIPIO DE TOLOSA.</u>**

**1.- Objeto del contrato**

Esleipena prozedura irekiaren bidez erabakiko da eta horren xede izango da Tolosako udalerrian Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua kontratatzea. Prozedura ireki honen bidez esleituko diren zerbitzu hauetan bete beharko diren eginkizunak gizarte laguntza alorrekoak izango dira eta eginkizun horiek honakoak izango dira: behar duten herritarrei sorospena ematea, herritar horien higiene pertsonalaz eta etxekoaz arduratzea eta betebehar burokratikoetan laguntzea, hala nola, Udalbatzak erabaki ditzakeen guztiak, beti ere helburu nagusiarekin zerikusi dutenean, hau da, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuarekin.

Aipatutako eginkizun horiek guztiak udal zerbitzu honen onuradun denaren etxean bertan burutuko dira.

La adjudicación, que mediante procedimiento abierto se acuerde, tendrá por objeto, la contratación de los trabajos de Ayuda Domiciliaria en el Municipio de Tolosa**,** siendo los servicios que habrán de ser prestados dentro de los trabajos a adjudicarse a través del presente procedimiento abierto, los correspondientes a las labores asistenciales, dentro de las cuales se hallan, las de asistencia e higiene personal y doméstica, las de asistencia en labores burocráticas, así como todos aquéllos que la Corporación pueda disponer, relacionados con el fin último de la Ayuda a Domicilio.

La prestación de las tareas enunciadas, se realizará en el domicilio de cada persona usuaria del servicio municipal.

**2.- Eskaintzaren zenbatekoa**

Lizitazioaren zenbatekoa ondorengo prezioak baino baxuagoak izan beharko dira:

- Ordu normala: 19,08 €.
- Jai-ordua: 24,15 €

Prezio honetan BEZa sartuta egongo da.

2013ko urtarrilaren 1eko ondorioekin, Hego Euskal Herriko lau probintzietako 2012 urteko KPIa aplikatuko da.
Era berean, urteko aplikagarria izango da aipameneko berrikuspena, formula horren arabera.

**2.- Importe de licitación**

El importe de licitación no podrá exceder de los siguientes precios:

- Hora normal: 19,08 €.
- Hora festiva: 24,15 €

En dicho precio estará incluído el IVA.

Con efectos de 1 de enero de 2013, se aplicará el IPC del año 2012 de las cuatro provincias de Hego Euskal Herria.
Asimismo, será aplicable anualmente la revisión mencionada de conformidad a dicha fórmula.

**3.- Emakidaren iraunaldia**

Emakidaren iraunaldia urtebetekoa izango da (urte bat) kontratu administratiboa sinatzen denetik kontatzen hasita. Hala ere, kontratu hori urtero-urtero luzatu ahal izango da beste lau urtez, baldin eta aldez aurretik Gobernu Batzarrak hala erabakitzen badu.

**3.- Plazo de duración de la concesión**

El plazo de duración de la concesión se fija en un año (1año), contado a partir de la firma del contrato administrativo, pudiendo ser prorrogado anualmente por la Corporación por otros cuatro años más, previo acuerdo de la Junta de Gobierno.

**4.- Polizaren zenbatekoa:** 600.000 euro.

**4.- Importe póliza:** 600.000 euros.

**5.- Behin betiko fidantza:** adjudikazio zenbatekoaren %5, BEZa sartu gabe.

**5.- Fianza definitiva:** 5% del importe de adjudicación, excluído IVA.

**6.-** Prozedura irekian parte hartzeko dokumentazioa Tolosako Udaleko Informazio eta Erregistro bulegoan aurkeztu behar da. Horretarako 15 egun natural daude, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Ordutegia: 09:00 – 13:00.

**6.-** La documentación para tomar parte en el procedimiento abierto será presentada en la oficina de Información y Registro del Ayuntamiento de Tolosa, en el plazo de 15 días naturales, contados a partir del siguiente al de la inserción del anuncio en el Boletín Oficial de la Provincia, de 9:00 a 13:00 horas.

**BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARRAK, TOLOSAKO UDALERRIAN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA ESLEITZEKO**

**CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA CONCESIÓN DEL SERVICIO DE AYUDA DOMICILIARIA EN EL MUNICIPIO DE TOLOSA**

**LEHENA.- Kontratuaren xedea.-**

Prozedura irekiaren bidez erabakiko den esleipenaren xedea plegu honetako karatularen lehen puntuan zehaztutako zerbitzuaren emakida izango da.

**PRIMERA.- Objeto del Contrato.-**

La adjudicación, que mediante procedimiento abierto se acuerde, tendrá por objeto la concesión del servicio señalado en el punto primero de la Carátula del presente Pliego.

**BIGARRENA.- Lehiaketara aurkezteko gaitasuna.-**

Gaitasun juridiko eta jarduteko osoa duten pertsona fisiko edo juridiko guztiak aurkeztu ahal izango dira lehiaketa honetara, baldin eta sarturik ez badaude ezgaitasun edo bateraezintasun kasuren batean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 60. artikuluan aurreikusitakoaren arabera .

Era berean, lizitatzaileek frogatu beharko dute hiru urteko esperientzia badutela etxez etxeko laguntza zerbitzuen esparruetan.

Halaber, lehiaketan norberak edo ahalorde askietsia duen ordezkoak parte hartu ahal izango du

Lehiaketan sozietate baten ordezkariak parte hartzen duenean, agiri bidez hartarako ahalmena duela egiaztatu beharko du.

Ahalordeak eta nortasuna egiaztatzeko dokumentuak, udal idazkariak askietsita, proposamenarekin batera aurkeztu behar dira.

Kontratua pertsona edo erakunde bakar batekin gauzatuko da. Alabaina, pertsona bi edo gehiagorekin itundu ahal izango da kontratua, baldin eta Udalarekin solidarioki obligatzen badira; nolanahi ere, Udalaren eskubideak, balizko horien aurrean, banaezinak izango dira.

Zerbitzuari atxikitako langile bakoitzari bere lanpostuari dagokion euskara maila jakitea eskatuko zaio. Zerbitzua ematean, errespetatu eta erraztu egingo du kontzesiodunak, euskaraz arreta jasotzeko eta euskara erabiltzeko erabiltzaileek duten eskubidea.

Kontratazio publikoaren prozeduratik kanpo geratuko dira, berdintasunaren alorrean arau hauste larri bat egiteagatik zigor irmoa jaso duten pertsonak eta enpresak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 60. artikuluak xedatzen duenaren arabera.

**HIRUGARRENA.- Eskaintza mota.-**

Eskaintzaren zenbatekoa plegu honen karatulako bigarren puntuan ezarritakoa izango da.

**LAUGARRENA.- Emakidaren iraunaldia.-**

Emakidaren iraunaldia plegu honen karatulako hirugarren puntuan ezarritakoa izango da.

**BOSGARRENA.- Publizitatea.-**

Prozedura irekia denez, publizitatea egingo da azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 157 artikuluaren arabera.

**SEIGARRENA.- Eskaintzak aurkeztea.-**

**SEGUNDA.- Capacidad de concurrir.-**

Podrán concurrir a esta licitación las personas físicas o jurídicas, que se hallen en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, y no estén comprendidas en ninguno de los casos de incapacidad o incompatibilidad previstos en el artículo 60 del Real Decreto Legislativo 3/2011, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

Asimismo, las personas licitantes deberán acreditar experiencia en el campo del servicio de Ayuda domiciliaria en los últimos tres años.

Asimismo, podrán hacerlo por sí o representadas por persona autorizada, mediante poder bastante.

Cuando en representación de una Sociedad concurra algún miembro de la misma, deberá justificar documentalmente que está facultado para ello.

Los poderes y documentos acreditativos de la personalidad se acompañarán a la proposición bastanteados por el Sr. Secretario del Ayuntamiento.

El contrato se otorgará con una sola persona o entidad. No obstante, podrá concertarse con dos o más personas si se obligaren solidariamente respecto al Ayuntamiento, cuyos derechos frente a las mismas serán, en todo caso, indivisibles.

El personal a adscribir al servicio deberá tener conocimiento de euskara en función del nivel exigible a las labores a realizar. En la prestación del servicio se respetará y facilitará el derecho de las personas usuarias a que sea atendido en euskara, así como su derecho a utilizar el euskara.

Se excluirán del procedimiento de contratación pública, las personas y entidades que hayan sido sancionadas con carácter firme por infracción grave en materia de igualdad, tal y cómo se establece en el artículo 60 del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre.

**TERCERA.- El tipo de licitación.-**

El importe de la licitación será el consignado en el punto segundo de la Carátula del presente Pliego.

**CUARTA.- Plazo de concesión.-**

El plazo de duración de la concesión será el señalado en el punto tercero de la Carátula del presente Pliego.

**QUINTA.- Publicidad.-**

Por tratarse de procedimiento abierto, se le dará publicidad al mismo, según lo dispuesto en el artículo 157 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público aprobada por Real Decreto Legislativo 3/2011 de 14 de noviembre.

**SEXTA.- Presentación de propuestas.-**

Proposamena aurkezteak berarekin bat adierazten du lizitatzaileak onartzen dituela plegu honetako baldintza guztiak, kontratuari dagozkion gainerako agiriak eta lanak kontratatzeko eskatzen diren baldintzak; era berean, adierazten du erantzule dela aurkeztu dituen datuak zuzenak direla.

La presentación de proposiciones presume la aceptación incondicionada por parte de la persona licitante de las cláusulas de este Pliego y del resto de los documentos contractuales, así como la declaración responsable de la exactitud de todos los datos presentados y de cada una de las condiciones exigidas para la contratación de los trabajos.

**6.1. Proposamenak eta agiriak**

Prozedura ireki honetan parte hartzeko, lehiatzaileak ondoren zehaztuko diren agiriak aurkeztuko ditu hiru gutun azal itxitan (A, B y C), plegu honetako seigarren puntuan agertzen diren bulegoetan. Horretarako 15 egun daude, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean lehiaketaren iragarkia atera eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Gutun azalean adieraziko dira enpresaren izena edo, egoki balitz, ondo irakurtzeko moduan, proposamena sinatu duen partikularraren izen eta deiturak eta zein izaeraz sinatzen duen. Gutun azalen aurrealdean honako paragrafoa idatziko da: “ Proposamena, Tolosako udalerrian etxez etxeko zerbitzua esleitzeko prozedura irekian parte hartzeko.”

**6.1. Proposiciones y documentación**

Para participar en el presente procedimiento abierto la persona licitadora deberá presentar dentro del plazo de 15 días naturales, contados a partir del día siguiente al de la inserción del anuncio en el Boletín Oficial de la Provincia, en las dependencias indicadas en el punto sexto de la carátula de este pliego, tres sobres cerrados (A, B y C), con la documentación que luego se especifica, indicando la denominación de la empresa, o en el caso de persona individual el nombre y apellidos de quien firme la proposición y el carácter con que lo hace, todo ello de forma legible. En el anverso de los sobres figurará la siguiente inscripción: “Proposición para tomar parte en el procedimiento abierto para la concesión del servicio de ayuda domiciliaria en el municipio de Tolosa.”

Lehiatzaileek aurkeztuko dituzten agiriak originalak edo Udalaren idazkariak kautotutako kopiak izango dira.

Los documentos presentados serán originales o copias autenticadas por el Secretario de la Corporación.

**6.1.1. “A” gutun azala. Kontratatzeko gaitasuna.**

Gutun azal honetan zera sartuko da:

1.- Lehiaketara aurkeztu den enpresariaren edo enpresari elkartearen nortasuna egiaztatzeko datuak:

1.1.- Lehiatzailearen nortasun juridikoa elkartea edo sozietatea bada, horren eraketa eskritura edo akta aurkeztuko da, hala nola dagokion erregistro publikoko inskripzioari buruzko datuak, hala behar denean.

1.2.- Proposamena aurkeztu duenaren NAN, bai proposamena bere izenean aurkeztu duenean bai inoren izenean aurkeztu duenean.

1.3.- Lehiatzailea bere izenean aurkeztu bada edo lehiatzailea sozietatea edo pertsona juridikoa bada, berak ordezkatzen duen pertsona edo erakundearen ahalorde askia (edo askietsia) eta Merkataritza Erregistroko horren datuak.

1.4.- Lehiatzailea enpresen aldi baterako elkartea bada, elkartea osatzen duten

**6.1.1 Sobre A. Capacidad para contratar.**

El presente sobre contendrá:

1.- Los datos que acrediten la personalidad del empresario o empresarios agrupados que licitan:

1.1.- Si se trata de una persona jurídica asociativa, o sociedad, escritura o acta de constitución de la misma, haciendo constar los datos de inscripción del Registro público correspondiente, cuando sea precisa.

1.2.- D.N.I. de la persona que presenta la proposición, ya lo haga en nombre propio o actuando en representación.

1.3.- Cuando la persona licitadora no actúe en nombre propio o se trate de una sociedad o persona jurídica, poder bastante (y bastanteado) para representar a la persona o entidad en cuyo nombre concurra y los datos de inscripción del mismo en el Registro Mercantil.

1.4.- Cuando la licitadora sea una agrupación temporal de empresas todas y cada una

enpresa guztiek banan bana egiaztatu behar dituzte aurreko paragrafoetan zehaztutakoa. Enpresen aldi baterako elkarte horretan enpresa bakoitzak duen partaidetza ere adieraziko da, hala nola administrazioarekin izango diren harremanetan elkartearen ordezkapen osoaz arduratuko den pertsonaren izena.

Enpresen aldi baterako elkartea esleipendun gertatzen bada, elkartearen eraketa egiaztatzen duten agiriak aurkeztuko dira, eta aipatu ordezkariaren alde emandako ahalorde askietsiaren kopia.

2.- Lizitatzaileak egiaztatu egin behar du betetzen dituela Administrazioarekin kontratatzeko gaitasun baldintzak, hain zuzen ere, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 54. artikulutik 64.era bitartekoek adierazten dituztenak.

Horrela, aurkeztu beharko du erantzukizunpeko adierazpen bat esanez betetzen dituela Administrazioarekin kontratatzeko gaitasun baldintzak eta ez dagoela sartuta inolako ezgaitasun edo bateraezintasun kasu bakar batean (azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 60. artikuluak adierazten dituenak). (Gizarte Segurantzako kuoten ordainketan eta zerga betebeharretan egunean egotearen deklarazioa edo ziurtagiria ere sartu behar da).

2.1 Enpresariaren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa, era hauetakoren baten bidez egiazta daiteke:

a) Finantza erakundeen txostena aurkeztuz edo, egoki balitz, laneko arriskuen kalte-ordainari erantzuteko aseguruaren egiaztagiria aurkeztuz.

b) Lehiatzailea pertsona juridikoa denean, urteko kontuak edo horien laburpena aurkeztuz, lehiatzailearen egoitza dagoen Estatuan kontu horiek argitaratzea derrigorrezkoa bada.

c) Negozio kopuru osoari buruzko aitorpena, hala nola azken hiru ekitaldietako obra, horniketa, zerbitzu eta lanei buruzkoa.

de las empresas acreditarán lo establecido en apartados anteriores, y se indicará por escrito la participación de las empresas en la agrupación temporal y la persona que ostentará la plena representación de todas ellas frente a la Administración.

En caso de que la agrupación resultara adjudicataria, se acreditará la formación de la constitución de la agrupación, y se presentará copia del apoderamiento bastanteado otorgado a favor de la persona representante.

2.- Acreditación de que la persona o entidad licitadora cumple con las condiciones de capacidad para contratar con la Administración enumeradas en los artículos 54 a 64 del Real Decreto Legislativo 3/2011 de 14 de noviembre.

En este sentido deberá presentar declaración responsable de cumplimiento de las condiciones de capacidad para contratar con la Administración y de no hallarse en ningún caso de incapacidad o incompatibilidad señalada en el artículo 60 del Real Decreto 3/2011, de 14 de noviembre. (Se incluirá declaración o certificación de hallarse al corriente en el pago de las cuotas de la S.S. y de las obligaciones tributarias).

2.1 La justificación de la solvencia económica y financiera de la empresa podrá acreditarse por uno o varios de los medios siguientes:

a) Informe de instituciones financieras o, en su caso, justificante de la existencia de un seguro de indemnización por riesgos profesionales.

b) Tratándose de personas jurídicas, presentación de las cuentas anuales o extracto de las mismas, en el supuesto de que la publicación de éstas sea obligatoria en los Estados en donde aquellas se encuentren establecidas.

c) Declaración relativa a la cifra de negocios global y de las obras, suministros, servicios o trabajos realizados por la empresa en el curso de los tres últimos ejercicios.

Arrazoi justifikatuak tarteko, enpresariak ezin baditu eman eskatutako erreferentziak, administrazioak askietsi ditzakeen edozein agiri aurkeztuz egiaztatu ahal izango du bere kaudimen ekonomiko eta finantzarioa.

Si por razones justificadas la empresa no puede facilitar las referencias solicitadas, podrá acreditar su solvencia económica y financiera por cualquier documentación considerada como suficiente por la administración.

2.2 Enpresaren kaudimen teknikoa ondorengo modu honetan egiaztatu behar da:

2.2. La justificación de la solvencia técnica de la empresa se acreditará de la siguiente forma:

a) Azken hiru urteetan emandako zerbitzu edo egindako lanen zerrenda aurkeztuz, honako datu hauekin: aipatu lanen zenbatekoak, datak eta lortutako etekin publiko eta pribatuak.

a) Relación de los principales servicios o trabajos realizados en los últimos tres años que incluya importe, fechas y beneficios públicos y privados de los mismos.

Ondorio hauetarako, lizitazioan parte hartzeko ezinbestekoa izango da enpresak egiaztatzea eskarmentua duela Administrazioan etxez etxeko laguntza zerbitzua ematen azken hiru urteetan.

A estos efectos sólo se admitirá a licitación las empresas que acrediten experiencia en la Administración e vicio de ayuda a domicilio en los últimos tres años.

Egindako lanak edo emandako zerbitzuak egiaztatu behar dira udal idazkariak egindako ziurtagirien bidez.

Los servicios o trabajos efectuados se acreditarán mediante certificados expedidos por el secretario municipal.

6.1.2 B gutun azala. Irizpide objektiboak.

6.1.2 Sobre B Criterios Objetivos.

Gutun azal honetan proposamen bakar bat sartuko da, lehiatzaileak edo bere ordez doanak sinatuta; proposamena agiri honetako 1. eranskinean jasotako ereduaren arabera idatzi behar da.

Contendrá una sola proposición firmada por la persona o entidad licitadora o por quién le represente, redactada conforme al modelo que figura como anexo 1.

- Proposamen ekonomikoa eskaintza-eredu bakar batean adieraziko da.
- Memoria ekonomikoa non oinarritzen den aurkeztutako proposamen ekonomikoa.
- “Bai Euskarari” edo “Bikain” ziurtagiriak

- La proposición económica consignará un único tipo económico.
- Memoria económica que justifique la propuesta económica presentada.
- Certificados “Bai Euskarari” o “Bikain”

6.1.3 C gutun azala. Balio-judizioen bidez aztertu beharreko dokumentazioa.

6.1.3 Sobre C. Documentación ponderable a través de juicios de valor.

**Honako dokumentazio hau eduki behar du:**

- Oroitidazkia, zerbitzua nola emango den jasoko duena. Kontuan izango dira zer ideia proposatzen diren zerbitzua hobetzeko.
- Lanean jardungo duen pertsonalaren osaketa, deskripzioa eta antolamendua, bakoitzaren zereginak zehaztuz, eta bakoitzaren curriculuma, kontratuaren xede diren lanen arabera.
- Interesgarritzat jo daitezkeen gainontzeko zirkunstantzia guztiak, beti ere lehiaketarekin zerikusi dutenak badira, eta egoki izan daitezkeen egiaztagiri eta guzti.

**Contendrá la siguiente documentación:**

- Memoria sobre la forma de prestar el servicio, en la que se tendrán en cuenta las ideas propuestas para la mejora del servicio.
- Composición, descripción y organización del personal que adscribirá a los trabajos, especificando las funciones, y el curriculum de cada persona, en orden a la realización de los trabajos objeto del contrato.
- Todas aquellas circunstancias que se estimen de interés y relacionadas con la contratación acompañadas de los pertinentes documentos acreditativos.

**<u>ZAZPIGARRENA</u>.- Kontratazio mahaia -**

**Proposamenak irekitzea.-**
Mahaia honela egongo da osatuta:

Lehendakaria: alkatea edo berak izendatutako zinegotzia.
Mahaikideak: Gizarte Zerbitzuetako teknikaria
Udal idazkaria
Administrazio orokorreko teknikaria
Behin-behineko kontuhartzailea
Idazkaria: Gizarte Zerbitzuetako administrari bat

1.- Kontratazio organoak aurrez aztertuko du "A" gutun azaletako edukia eta aurrez kalifikatuko, lizitatzaileek garaiz eta formaz aurkeztutako agiriak.

Baztertuta geldituko dira ondorengo baldintza betetzen ez dutenak: azken hiru urteetan administrazio publikoetan esperientzia izatea etxez etxeko zerbitzua ematen.

2.- Hiru eguneko epea egongo da akatsak zuzentzeko, errakuntza material edo egitezkoak badira, edo eskatutako agiriren bat aurkezteko.

3.- Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta laugarren egun baliodunean, 12:00etan, Udaletxean, "C" gutun azalak, Balio-judizioen bidez aztertzeko dokumentazioarenak, irekiko dira. Ekitaldia publikoa izango da.

4.- Ez dira onartuko ondorengo proposamenak: kontraesan, omisio, akats edo zirriborroak dituztela eta, ez bada garbi agertzen Udalak funtsezkotzat jotzen duen zerbait eskaintza kontuan izateko; edo emandako eredutik nabarmen aldentzen diren proposamenak.

**ZORTZIGARRENA.- Bete proposamen batzuk aurkeztea.-**

Zerbitzu teknikoek txostena egin eta gero irizpide horien gainean, "B" gutun azala irekiko da, hau da, objektiboki ebaluagarriak diren irizpideena.

**BEDERATZIGARRENA.- Esleipenean kontuan hartu behar diren zirkunstantziak.-**

Administrazioak ahalmen osoa izango du kontratua bere iritzian abantailarik onenak eskaintzen dituenari esleitzeko, eta horretarako, eskaintza ekonomikoak ez du zertan erabakigarria izan behar. Era berean, prozedura irekia hutsik uztea erabaki dezake.

Aurkeztutako eskaintzak baloratzeko orduan kontuan izango diren alderdiak honakoak dira:

1.-Proposamen ekonomikoa. Gehienez 45 puntu.
Puntu bat emango da lizitazioaren gehinezko

**SEPTIMA.- Mesa de contratación - Apertura de proposiciones.-**
_La Mesa estará constituida de la forma siguiente:

Presidente: El alcalde, concejal o concejala en quién delegue.
Vocales: La técnico en Servicios Sociales
El secretario municipal
La técnico de administración general
El interventor accidental.
Secretario: Un administrativo del área de servicios sociales.

1.- El Órgano de contratación examinará con carácter previo el contenido del sobre "A" y calificará previamente los documentos presentados por los licitadores en tiempo y forma.
Serán rechazadas aquellas propuestas que no cumplan el requisito de la experiencia en la prestación del servicio de ayuda domiciliaria en Administraciones públicas en los últimos tres años.

2.- Se concederá tres días para subsanar los defectos que se deban a errores materiales o de hecho, o para la presentación de alguno de los documentos señalados.

3.- A las 12:00 horas del cuarto día hábil al de finalización del plazo para presentar las proposiciones se procederá en acto público, que se celebrará en la Casa Consistorial, a la apertura del sobre "C": Documentación ponderable a través de juicios de valor.

4.- No se aceptarán aquellas proposiciones que tengan contradicciones, omisiones, errores o tachaduras que impidan conocer claramente lo que el Ayuntamiento estime fundamental para considerar la oferta, o las que varíen sustancialmente con respecto al modelo establecido.

**OCTAVA.- Presentación de otras propuestas.-**

Una vez emitido el correspondiente informe por los servicios técnicos sobre los anteriores criterios, se procederá a la apertura del sobre "B" que contiene los criterios evaluables objetivamente.

**NOVENA.- Circunstancias a tener en cuenta en la adjudicación.-**

La Administración tendrá la facultad de adjudicar el contrato a la proposición que considere más ventajosa, sin atender necesariamente al valor económico de la misma, o declarar desierto el procedimiento abierto.

Los aspectos que serán tenidos en cuenta a la hora de proceder a la valoración de las solicitudes presentadas serán los siguientes:

1.-Propuesta económica. Se valorará como

zenbatekoaren %bateko jaiste bakoitzagatik.

2.- Zerbitzuan jardungo duten giza baliabideen osaketa, deskripzioa (curriculuma) eta antolamendua. Gehienez ere 20 puntu.

3.- Memoria, zerbitzua nola emango duten jasoko duena. Kontuan izango dira, bereziki, zerbitzua hobetzeko enpresak proposatzen dituen ideia berriak. Gehienez ere 29 puntu.

Baloratu beharreko hobekuntzak hauek dira:

- Zerbitzura adskribitutako pertsonalari eskainitako prestakuntza, egin beharreko lanarekin zerikusia duen gaietan.

- Ordutegi erabilgarritasuna zerbitzua emateko.

- Zerbitzuaren udal arduradunarekin koordinatzeko protokoloak.

- Zerbitzura adskribitutako giza baliabideen prestutasuna, aktiboki parte hartzeko eta murgiltzeko ETXEAN ONDO etxez etxeko arreta integraleko programan.

4.- Bai Euskarari edo Bikain euskararen normalizazioa bermatzen duten ziurtagiria izateak 5 puntuko balioa izango du.

**<u>HAMARGARRENA</u>.- Behin betiko esleipena.-**

Esleipena Gobernu Batzarrak erabakiko du 03/57 Legeko 22.4 artikuluaren arabera, Tokiko Gobernuaren neurrien modernizaziorako. Bere ahalmenez hartuko duten erabaki hori zerbitzua zuzentasunik handienaz emateko abantailarik onenak eskaintzen dituenaren aldekoa izango da, eskaintza ekonomikoa ez delarik erabakigarria izango; berebat, erabakian kontuan izango dira gai honi buruz emango diren informeak, eta baita bederatzigarren klausulan adierazitako zirkunstantziak ere.

**<u>HAMAIKAGARRENA</u>.- Behin betiko fidantza.-**

Behin betiko fidantza adjudikazio zenbatekoaren % 5 izango da, BEZarik gabe.

**<u>HAMABIGARRENA</u>.- Kontratua formalizatzea.-**

Adjudikazioa jakinarazi eta hurrengo hamabost egun baliodunen barruan gauzatuko da.

**<u>HAMAHIRUGARRENA</u>.- Udalaren eskumenak eta betebeharrak.-**

Kontratatutako zerbitzua behar den bezala emateko helburuarekin, Udalak beregain izango ditu, Gizarte Zerbitzuen bidez, honako eginkizun hauek:

.. Arretaren premia duten kasuak atzeman eta aztertzea.

máximo sobre 45 puntos. Se otorgará un punto por cada 1% de rebaja sobre el importe máximo de licitación.

2.-Composición, descripción (currículo) y organización de los medios humanos a adscribir al servicio. Se valorará como máximo sobre 20 puntos.

3.- Memoria sobre la forma de prestación del servicio, teniéndose en cuenta especialmente las nuevas ideas propuestas por la empresa para la mejora del servicio. Se valorará como máximo sobre 29 puntos.

Las mejoras a valorar serán las siguientes:

- Formación ofrecida al personal adscrito al servicio en materias relacionadas con el trabajo a realizar.

- Disponibilidad horaria en la prestación del servicio.

- Protocolos de coordinación con la técnico municipal responsable del servicio.

- Disponibilidad del personal adscrito al servicio para participar e involucrarse activamente en el programa ETXEAN ONDO de atención domiciliaria integral.

4.- Se valorará con 5 puntos la posesión del certificado Bai Euskarari o Bikain de garantía de normalización del euskara.

**<u>DÉCIMA</u>.- Adjudicación definitiva.-**

La adjudicación, la efectuará la Junta de Gobierno en base al artículo 22.4 de la Ley 57/03, de medidas para la modernización del Gobierno Local, quien decidirá a favor de la propuesta que considere más ventajosa para la correcta emisión del servicio, sin atender necesariamente al valor económico de la misma, teniendo en cuenta los informes emitidos, y valorando las circunstancias expresadas en la cláusula novena.

**<u>UNDECIMA</u>.- Fianza definitiva.-**

La fianza definitiva será del 5% del importe de adjudicación, excluido IVA.

**<u>DECIMOSEGUNDA</u>.- Formalización del contrato.-**

Se efectuará dentro del plazo de quince días hábiles siguientes a contar desde la fecha de notificación de la adjudicación.

**<u>DECIMOTERCERA</u>.- Competencias y deberes del Ayuntamiento.-**

En orden a la correcta emisión de los servicios cuya prestación se contrata, el Ayuntamiento a través del Departamento de Servicios Sociales se reserva las funciones de:

..Detección y estudio de los casos a atender.

.. Eman beharreko arretaren trinkotasuna proposatzea.

.. Zerbitzuko onuradun bakoitzaren programak, bai kualitatiboki bai kuantitatiboki, betetzen diren gainbegiratzea.

.. Artatuekin harremanetan egotea, ea ondo dauden jakiteko, ematen zaien zerbitzuari buruzko kexak jasotzeko, proposamenak, eta abar.

.. Zerbitzuaren funtzionamendu egokia ziurtatzeko, behar diren polizia eginkizunak betetzea.

.. Kontratuaren betearazpenerako zuzendaritza eta kontrol ahalmenak praktikan jartzea.

.. Kontratuaren betearazpenean Administrazioaren eta kontratistaren artean sor daitezkeen gertakizunetan alde bateko erabakiak hartzea eta horiek betearaztea.

**<u>HAMALAUGARRENA</u>.- Enpresa emakidadunaren betebeharrak.-**

Ondokoak izango dira emakidadunak beregain hartuko dituen betebeharrak:

a) Zerbitzua plegu honetan bertan eta emakidaren edukia osatzen duten gainontzeko agirietan zehaztu den modura betetzea.

b) Emakidaren xedea errespetatzea, hala nola emakidan bertan ezarritako mugak gordetzea. Zerbitzuari behar den arreta emango zaio, eta une oro prestazioa zuzentasunik handienaz ematea bermatuko da.

c) Udalak eman ditzakeen jarraibideak betetzea, udal agintariei edo bere agente edo tekniko eskudunei erraztasunak emanez zerbitzuaren ustiapena ikuskatzeko.

d) Emakidadunak emakidak dirauen artean emango du zerbitzua, bere kontura izango direlarik sor dakizkiokeen gastuak, hala nola prestazioaren xede diren jarduerei legozkiokeen tasa eta zergak.

e) Zerbitzuaren beharrizanei erantzuteko Enpresa emakidadunari eta pertsonalari buruzko Gizarte Segurantza, eta Laneko Prebisio eta Segurtasun obligazioetan eguneratuta egotea. Administrazioak eskatzen dion aldizkotasunaz erakutsi beharko dizkio Udalari langileen Gizarte Aseguruei dagozkien kopiak, ordainketak jaso dituen erakundeak behar bezala zigilatuta, eta obligazio fiskalak, laneko arriskuen prebentziokoak eta gainerakoak gauzatu direla egiaztatzeko behar diren agiri guztiak.

f) Zerbitzua egokitasunez emateko behar den pertsonal guztia jarriko du zerbitzuaren prestaziorako, hala nola, langileen artean gerta daitezkeen opor, baja, eta abarretan behar diren ordezkapenak egiteko.

..Propuesta de la intensidad de la atención a prestar.

..Supervisión del cumplimiento cualitativo y cuantitativo del Programa de cada una de las personas beneficiarias del servicio.

..Relación con las personas atendidas, en orden a la obtención de las estimaciones de su satisfacción, recepción de quejas, propuestas, etc., con relación al modo de emisión del servicio.

..Ejercer los poderes de policía necesarios para asegurar la buena marcha del servicio de que se trata.

..Ejercer los poderes de dirección y control de la ejecución del contrato.

..Resolver de forma unilateral y ejecutar cuantas incidencias surjan entre la Administración y la empresa concesionaria en la ejecución del contrato.

**<u>DECIMOCUARTA</u>.- Deberes de la empresa concesionaria.-**

Serán deberes de la empresa concesionaria los siguientes:

a) Explotar el servicio en la forma prevista en este Pliego y en los demás documentos que constituyan el contenido de la concesión.

b) Respetar el objeto de la concesión y los límites establecidos en la misma, debiendo emitir el servicio con la diligencia debida, garantizándose en todo momento su correcta prestación.

c) La observancia de las directrices emitidas por el Ayuntamiento, permitiendo a la autoridad municipal y a sus agentes o personal técnico competente, la inspección de la explotación del servicio.

d) El Servicio se prestará por la empresa concesionaria durante el plazo de duración de la concesión, siendo de su cargo los gastos que se le originen, así como todas las tasas y tributos que correspondan a la actividad objeto de prestación.

e) Estar al día en lo que a obligaciones de Seguridad Social y Previsión y Seguridad en el Trabajo se originen con respecto a la empresa concesionaria y al personal necesario para cubrir los servicios, debiendo proporcionar al Ayuntamiento con la periodicidad que se le requiera, copia de los Seguros Sociales, debidamente sellada por la entidad donde se haya efectuado el correspondiente ingreso así como cualquier justificante acreditativo del Cumplimiento de sus obligaciones fiscales, de prevención de riesgos laborales, etc.

f) Poner en todo momento a disposición de la prestación de los servicios todo el personal preciso para su correcta emisión y para el

cubrimiento de todas las ausencias, bajas, etc., del mismo.

g) Zerbitzua ematearen ondorioz hirugarren pertsonei eragindako kalteak ordaintzeko, erantzunkizun zibilerako poliza bat itunduko du kontratistak. Horren zenbatekoa plegu honen karatulako 4. puntuan adierazitakoa izango da. Betekizun horretatik salbuetsita egongo da emakidaduna, kaltea Udalbatzak ezinbestez betebeharrekotzat emandako aginduaren betearazpenean gertatu bada.

g) Tener asegurada la responsabilidad civil, para lo cual habrá de suscribir una póliza por el importe que se señale en el punto 4 de la carátula del presente pliego, a fin de indemnizar a terceras personas de los daños que se les ocasionare como consecuencia de la emisión del servicio, salvo si se hubiesen producido por actos realizados en cumplimiento de una cláusula impuesta por la Corporación con carácter ineludible.

h) Bere pertsonalari prestakuntza etengabea eskatuko dio emakidadunak. Horren ildotik, erakunde publikoek edo pribatuek antolatzen dituzten prestakuntza eta birziklatze ikastaroetara bidaliko ditu langileak.

h) Exigir a su personal su permanente formación, a través de la asistencia a cursos de formación y reciclaje que por entidades públicas o privadas se organicen.

i) Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuko 18.d) artikuluan ezarritakoari jarraituz, kontratistak honako baldintza hauek bete behar ditu:

1. Erabiltzaileek eta, oro har, herritarrek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan atendituak izateko duten eskubidea errespetatuz eta betez eman beharko du prestazioa, eta arrazoi horrengatik, kontratuaren exekuzioari atxikitako pertsonalak euskaraz jakin beharko du, zerbitzua behar bezala emateko neurrian.

2. Herritarrentzako inprimakiak, oharrak eta jakinarazpenak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz gauzatu beharko ditu kontratistak. Beti eduki bertsuak izan ohi dituztenak euskara hutsez, eta ele bietan egiten direnen kasuan, euskarari lehentasuna emango zaio, bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa erdarazkoaren gainean) eta bai neurriaren aldetik.

3. Udalarekin izango duen harremana, ahozkoa zein idatzizkoa, euskaraz gauzatzeko, kontratistak behar adina giza baliabide jarriko ditu. Egiteko hau egoki betetzeko dituen giza baliabideen ezaugarriak jakinaraziko dizkio udalari.

4. Zerbitzuaren lan hizkuntza euskara izango da.

5. Zerbitzuan jardungo duen pertsonalaren euskara-maila agiri bidez egiaztatua.

i) De acuerdo con lo establecido en el artículo 18.d) del Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización de uso del euskera en las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la empresa concesionaria deberá cumplir los siguientes requisitos:

1. Estará obligada a realizar la prestación respetando y facilitando el derecho de la persona usuaria y público en general a ser atendida y a utilizar las dos lenguas oficiales de Euskadi, y por tanto, el personal a adscribir a la ejecución del contrato deberá tener conocimiento de euskera, en función de la correcta prestación del servicio.

2. Estará obligado a proveer en euskera o en euskera y castellano los impresos, avisos y comunicaciones al público. Se redactarán solamente en euskara los que siempre tengan un contenido similar, y cuando lo sea en bilingüe se dará prioridad al euskara tanto en su posición como en relación al tamaño.

3. Dispondrá de los recursos humanos necesarios para relacionarse con el Ayuntamiento en euskera, tanto oralmente como por escrito. Asimismo, comunicará al Ayuntamiento sobre las características del personal dispuesto al efecto.

4. El idioma de trabajo del Servicio será el euskara.

5. Deberá acreditar documentalmente el conocimiento de euskara por el personal a adscribir al servicio.

j) Ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar du:

- Hilero: Gizarte Segurantzari egindako likidazioen kopia bat.
- Urtero: gutxienez Zerga Administrazioak egindako ziurtagiria, zerga obligazioak behar bezala beteta dituela adieraziko duena.

j) Deberá presentar los siguientes documentos:

- Mensualmente, una copia de las liquidaciones realizadas a la Seguridad Social.
- Anualmente, como mínimo, un certificado emitido por la Administración Tributaria de encontrarse al corriente

de sus obligaciones tributarias.

k) Kontzesiodunak zerbitzua prestatzen duen pertsonala subrogatu egingo du. Beren datuak eranskinean agertzen dira.

Subrogazioak bakar-bakarrik ukituko du lan kontratua daukan pertsonala, kontratatzen duen erakundearen esparruan lan egin duena azken 6 hilabeteetan, ordezkapenak egiten –bukatu arte- jardun duen pertsonala barne.

l) 250 enplegatutik gorako enpresa kontratistek Berdintasun Plana eduki behar dute exekuzioan, eta hori egiaztatuko lukeen froga aurkeztu behar dute, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoko 45.2 artikuluak xedatuaren arabera. Edozein kasutan, neurri hori exekutagarria izan behar du 12 hilabeteko epean, adjudikazio kontratua sinatzen denetik kontatuta.

k) El concesionario deberá subrogar al personal que viene prestando el servicio, y cuyos datos se detallan en el listado anexo.

La subrogación afectará únicamente al personal que posea un contrato laboral y haya trabajado en el marco de la institución contratante al menos durante los últimos 6 meses, incluyendo las sustituciones hasta su propia finalización.

l) En caso de empresas de más de 250 trabajadores/as, se deberá elaborar y aplicar el plan de igualdad exigido por el artículo 45.2 de la Ley orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres. En todo caso, dicha medida deberá ser ejecutiva en el plazo de 12 meses desde la firma del contrato de adjudicación.

**<u>HAMABOSGARRENA</u>.- Emakidadunaren eta hirugarren batzuen arteko harremanak.-**

Emakida esleitutzat joko da, baina ez jabetasun eskubidea. Nolanahi ere, emakida esleitzeak ez du hirugarrenik kaltetuko.

**<u>DECIMOQUINTA</u>.- Relaciones entre la empresa concesionaria y terceros.-**

Esta concesión se entenderá otorgada salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio de terceros.

**<u>HAMASEIGARRENA</u>.- Gastuak.-**

Behin betiko esleipena gauzatzen den une beretik, emakidadunaren kontura izango dira honako gastuak: iragarkiak jartzea eta gainontzeko guztiak, baldin eta legezkoak badira eta lehiaketaren espedientearekin eta kontratuarekin –hasieratik eta formalizatzera arte- zerikusia badute.

**<u>DECIMOSEXTA</u>.- Gastos.-**

Desde el momento de la adjudicación definitiva corren de cuenta de la empresa concesionaria los gastos tales como importe de los anuncios, y de los demás que siendo legítimos, tengan relación con el expediente del concurso y con el contrato desde la iniciación hasta la formalización.

**<u>HAMAZAZPIGARRENA</u>.- Zehapenak.-**

Urrapen arinak, larriak eta oso larriak izango dira:

- Urrapen arinak:

. Emakidadunari dagozkion obligazioetan atzeratuta ibiltzea.

. Zerbitzuak eskatzen duen egokitasun eta profesionaltasunean urrapen arinak egitea.

. Udalbatzak emandako jarraibideen betearazpenean urrapen arinak egitea.

Emakidadunak urrapen arinen bat egiten duenean, **360** eurotik beherako zehapena ezarriko zaio urrapen bakoitzarengatik. Alabaina, horrek ez du esan nahi, urrapen horien ondorioz erantzukizun judizialak sortzen badira, horiei erantzun beharko ez dienik.

Zehapen hauek ezartzeko orduan, indarrean dagoen legeriak xedatutakora joko da.

- Urrapen larriak:

. Emakidadunak behin eta berriz zehapen arinak ekar ditzaketen urrapen arinak egitea.

**<u>DECIMOSEPTIMA</u>.- Sanciones.-**

Las sanciones se clasificarán en leves, graves y muy graves.

- Serán infracciones leves:

. Los retrasos en el cumplimiento de las obligaciones de la empresa concesionaria.

. La falta leve de la diligencia y profesionalidad debida en la emisión del servicio.

. El incumplimiento leve de las directrices emitidas por la Corporación.

Si la empresa concesionaria cometiese una infracción de carácter leve, se le impondrá una sanción que no sobrepasará la cantidad de **360** euros, por cada infracción, sin perjuicio de las responsabilidades y consecuencias en la relación jurídica que puedan derivarse de tales hechos.

Para la imposición de estas sanciones se estará a lo dispuesto por la legalidad vigente.

- Serán infracciones graves:

. La reiteración por parte de la empresa concesionaria en actos que den lugar a sanciones leves.

. Emakidan jaso duen zerbitzuari ez ohiko erabilera ematea.

. Zerbitzuen kontura jardueraren bat burutzea, jarduera horrek emakidarekin zerikusirik ez badu.

. Emakidadunaren oinarrizko betebeharretan urrapen larria egitea.

Urrapen hauei dagokien zehapenetarako prozedura eta zehapenei dagozkien isunak ordaintzeko moduak urrapen arinentzat aurreikusi direnak izango dira. Gehiengo zehapena 1.800 eurokoa izango da urrapen bakoitzarengatik. Alabaina, horrek ez du esan nahi, hutsegite horien ondorioz erantzukizun judizialak sortzen badira, horiei erantzun beharko ez dienik.

Emakidadunak izaera larriko urrapena egiten badu eta horrekin zerbitzu publiko hau egokitasunez ematea arriskuan jarri, edota jokabidea aldatzeko ematen zaizkion aginduak betetzen ez baditu, Administrazioak emakida bahitzera jo dezake, zerbitzuaren prestazio egokia bermatzearren.

Udalbatzak hartutako erabakia emakidadunari luzatuko zaio, eta Udalak ezarritako epearen barruan urrapena konpontzen edo zuzentzen ez badu emakidadunak, bahiketa gauzatzera joko da.

- Oso urrapen larriak izango dira:

. Emakidadunari dagozkion oinarrizko betebeharretan egindako urrapen larriak.

. Behin eta berriz urrapen larrietan erortzea.

. Emakidadunak zerbitzuari dagokion jarduera ez burutzea baldintza plegu honetan aurreikusi den erara.

. Zerbitzuaren prestazioa gelditzea edo etetea, ezinbesteko zioren bat gertatu ezean.

. Ez betetzea zerbitzuari atxikitako pertsonalari dagozkion lan betekizunak, Gizarte Segurantzakoak eta laneko arriskuen prebentziokoak.

Oso urrapen larrien kasuan kontratua suntsitu daiteke.

**<u>HEMEZORTZIGARRENA</u>.- Eskudun auzitegiak.-**

Emakidadunak uko egingo dio jurisdikzioz eta helbidez dagozkion Epaitegietara jotzeko eskumenari eta Tolosako Epaitegien eskumen eta jurisdikziora lotuko da, kontratuaren interpretazio eta betearazpenari dagozkien arazo guztietan.

Tolosan, 2012ko ean

ALKATEA
Ibai Iriarte San Vicente

. El uso anormal del servicio concedido.

. El ejercicio de una actividad sobre los servicios que no sea la que tiene por objeto dicha concesión.
. La infracción grave de las obligaciones esenciales de la empresa concesionaria.

El procedimiento para la imposición de estas sanciones y la forma de recaudación, será idéntico a lo previsto para las infracciones leves. La sanción máxima será de 1.800 euros por cada una de las infracciones, sin perjuicio de las responsabilidades y consecuencias en la relación jurídica que puedan derivarse de tales hechos.

Si la empresa concesionaria incurriese en infracción de carácter grave que pusiera en peligro la buena prestación del servicio público, incluida la desobediencia a órdenes de modificación, la Administración podrá declarar en secuestro la concesión, con el fin de asegurar aquél provisionalmente.

El acuerdo de la Corporación deberá ser notificado a la empresa concesionaria, y si éste dentro del plazo que se le hubiere fijado, no corrigiera la deficiencia, se ejecutará el secuestro.

- Tendrá el carácter de infracciones muy graves:

. La infracción gravísima de las obligaciones esenciales de la empresa concesionaria.

. La reiteración de sanciones graves.

. El no ejercicio de la actividad por la empresa concesionaria en las condiciones previstas en el presente pliego de condiciones.

. La paralización o interrupción de la prestación de los servicios, a no ser que concurra causa de fuerza mayor.

. El incumplimiento de las obligaciones laborales, de Seguridad Social, y de prevención de riesgos laborales, con el personal adscrito a los servicios.

En caso de infracciones muy graves podrá acordarse la resolución del contrato.

**<u>DECIMOCTAVA</u>.- Tribunales competentes.-**

La empresa concesionaria renuncia a la jurisdicción de los Tribunales de su propio fuero y domicilio y se somete a la competencia y jurisdicción de los Tribunales de Tolosa, en todo aquello que haga referencia a la interpretación y cumplimiento del contrato.

Tolosa, a de del 2012

EL ALCALDE
Ibai Iriarte San Vicente

1 ERANSKINA

PROPOSAMEN EREDUA

....................................................................................... jaun/andreak, N.A.N. ............................ zk.dunak, bere izenean (edo .................................................ren ordezkaritzan) dihardelarik, honakoa jakinarazi nahi du:

1.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren .........zk.an kaleratu den iragarkiaren bidez Tolosako Udalak deitu duen etxez-etxeko laguntza zerbitzuaren emakidarako prozedura irekian parte hartu nahi duela.

2.- Ez dagoela sartuta azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 60 artikuluak aurreikusitako ezgaitasun edo bateraezintasun kausa bakar batean ere.

3.- Honekin batera doazela Baldintza Administratiboen Agirian eskatzen diren gainontzeko agiri guztiak.

4.- Oso-osorik onartzen duela kontratu hau arautzen duten Baldintza Administratiboen Plegua, eta horien ondorioz lizitatzaile edo adjudikaziodun bezala dagozkion betebehar guztiak.

5.- Halaber, Industria Nazionalaren eta Lanaren Babeserako Legeetan xedatutako guztia, prebisio eta gizarte segurantzari dagozkienak barne, betetzeko konpromisoa bereganatzen duela.

6.- Emakidaren xede diren zerbitzuen prestaziorako, honako prezioen eskaintza egiten duela: Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuan, ................. euro orduko, lanordu arrunta; eta ............ euro orduko, jaiegunetako lanordua. Prezio horietan sartuta daude zerga eta gastu guztiak, BEZa barne.

7.- Proposamen hori justifikatzen duen memoria ekonomikoa honekin batera aurkezten duela.

Tolosan, 2012ko ............ren .......an

LIZITATZAILEA

**BIGARRENA**.-Kontratuaren zenbateko guztia, BEZ-a gabe, hau da:

*Lanegunetan 19,08 € / ordukoa.
*Jai egunetan 24,15 €/ ordukoa.

**HIRUGARRENA**.-Kontratuaren epea: Urtebetekoa izango da, 201eko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31era, urtero-urtero luzatu ahal izango da beste lau urtez, baldin eta aldez aurretik Gobernu Batzarrak edo Alkatetzak hala erabakitzen badu.

**ANEXO 1**

MODELO DE PROPOSICION

D/Dª.......................................................... con domicilio............................................... , con D.N.I. nº.......................... en nombre propio (o en representación de.................................) hace constar:

1.- Que solicita su admisión al procedimiento abierto convocado por el Ayuntamiento de TOLOSA según anuncio inserto en el Boletín Oficial de la Provincia, nº... para concesión del servicio de ayuda a domicilio.

2.- Que no se halla incurso en ninguna de las causas de incapacidad o incompatibilidad que establece el artículo 60 del Real Decreto Legislativo. 3/2011 del 14 de noviembre.

3.- Acompaña los demás documentos exigidos en el Pliego de Cláusulas Administrativas.

4.- Acepta plenamente el Pliego de Cláusulas Administrativas de esta contratación y cuantas obligaciones del mismo se deriven como licitante y como persona o entidad adjudicataria si lo fuese.

5.- Asimismo se compromete a cumplir lo dispuesto por las Leyes protectoras de la Industria Nacional y del Trabajo en todos sus aspectos, incluidos los de previsión y de seguridad social.

6.- Que propone como precio de la prestación de los servicios objeto de la concesión, el de .............. euros/hora normal y de .................euros./hora festiva para el servicio de Ayuda a Domicilio. En dichos precios están incluidos todos los impuestos y gastos, IVA incluido.

7.- Que acompaña la memoria económica que justifica dicha proposición.

Tolosa, a de de 2012

LICITANTE

**SEGUNDA.-** El precio total del contrato, sin IVA, es de:

*19,08 € / hora normal.
*24,15 € / hora festiva.

**TERCERA.-** El plazo del contrato: Se fija en un año, desde el 1 de enero de 2013 al 31 de diciembre del mismo año, pudiendo ser prorrogado anualmente por la Corporación por otros cuatro años más, previo acuerdo de la Junta de Gobierno o de Alcaldía.

**Hitzartutako guztia jasota gera dadin, kontratu honen bi ale sinatzen dira, hasieran aipatutako toki eta egunean.**

**Para la debida constancia de todo lo convenido, se firma este contrato en duplicado ejemplar, en el lugar y fecha al principio indicados.**

UDALAREN IZENEAN

KONTRATATUAREN IZENEAN

O.E. IDAZKARIA